

Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra (II)

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 5

Deskribatzaileak:

- Eszenara eramandako bereziki testu teatral ez diren testuen gaineko Ikerketa-lanaren proposamen praktikoa.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

- Hizkuntza eszeniko garaikidearen printzipioak eta sorkuntza-prozesuak ezagutu eta aztertzea, ikuspegi metodologiko desberdinetatik abiatuta: semiotikoak, estetikoak, soziologikoak edo antropologikoak.
- Sorkuntza garaikideko lan-metodoak ezagutu eta probatzea, sorkuntza kolektibo metodoei arreta berezia eskainiz.
- Ikerketa-gaitasunak garatzea, ikuskizunaren arteei eta prozesu sortzaileei dagokienez.
- Euskal Herriko abangoardiako adierazpenak identifikatu eta beste leku batzuetako egile eta sortzaileen dramaturgiekin erlazionatzea.
- Lan garaikideko tailer praktikoa.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

- Proposamen eszeniko eta narratibo garaikideen azterketari dagokionez, ideiak eta argudioak era arrazoituan eta kritikoan garatzea.
- Dramaturgia garaikideekin zerikusia duen Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.
- Dramaturgia garaikideen ezaugarriak ezagutzea, horien sortzaile nagusiak eta ekarpen estetiko, etiko eta humanistikoak.
- Eszena garaikidearen estetika eta narratiba beste arte-hizkuntza batzuekin erlazionatzea.
- Ikasgai desberdinetan landutako ezagutzak eta teknikak osatu eta antzerki garaikideko lan dramatikoaren eszenaratzean erabiltzea.
- Proposamen dramatikoak egitea, antzezpenerako bereziki ez sortutako testu-, ikus-material, edo beste edozein izaeratako materialetatik abiatuta.
- Ezagutu eta interpretearen sorkuntza-lanean erabiltzea sorkuntza-antzerkian eta beste adierazpen performatibo batzuetan maiz erabiltzen diren teknologien adierazpen-aukerak (soinua, argia, ikus-entzunezkoak).



- Talde batean integratu eta ekarpen esanguratsuak egitea lan garaikide baten eszenaratze-prozesu konplexu bat egitera bideratutako lan kolektibo batean.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatze eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.